

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko otsailak 27 Ilustrtea

Usurbil, 37. Zenbakia



**Herria epaituko
dute**

Txerrimunik ordainetan



Iruindegiko **Anjela Arrillaga Maiozi** zorionak. Martxoaren 1ean 84 urte beteko dituzu eta sasoi onean gainera! Aurtengoa bezala izan dadila hurrengo ere. Zure familiaren partetik.



Maria Azkonobieta Esnal. Zorionak! Ondo pasa martxoaren 2an, txanpaina preskatzen jarri, zure urtebetetzea ospatuko dugu eta. Familiaren partez, bereziki Joanes, Beñat eta Peruren partez.

12 senideko laugarren lribartarrari, urte-askoan Edurne! Hire familia osoaren partetik.



Zorionak tikiya! Martxoaren 2an beteko ditun 21 eta oraindik hire laranja erdia bilatzeke. Ez al zain iruitzen badela garaya? Ni prest natxion. Hire azukre koxkorrak. Mila muxu **Eider Retegi**.



Zorionak **Pedro Mari Matxain!** Espero dugu ondo pasako zenuela otsailaren 26an. Guk, behintzat, ondo ospatu genuen zure 56. urtemuga. Urte askotan... muxu bat zure familiaren partez.



Stoizismoko abeslariari, taldeko guztien partez, zorionak **Andoni Flores!** Otsailaren 25ean 18 urte. Gorka, Gustavo, Emilio, Jokin eta Arantza

Nagore Segurola Azkonobieta.

Zorionak zure urtebetetzean! Martxoaren 7an dira eta bi zenbakia-ekin hasiko zara, animo! Ondo pasa eta muxu asko familiaren partetik.



Rikardo Izeta. Martxoaren 3an niri belarritik 30 aldiz tiratzen ausartzen den guztiari tragoa eta pintxoia debalde.



Xabier Sancho. Etxeko txikia haunditzen ari zaigu, bai horixe!. Martxoaren 1ean sei urte beteko dituzu. Zorionak! Etxekoan partez.



Agurne Alkorta. Zorionak! Eta ondo ospatu martxoaren 1ean beteko dituzun 13 urte horiek. Ah, eta ondo abestu koroan. Entrenatzailea.

Aupa **Asier Arriaga!** 19 urterekin zer moduz? Otsailaren 22an bete zenituen, inauteri bete-betean. Segi horren langile eta alai. Zure lagunak.



Urte askotan **Mikel eta Kerman Errekondo.** Martxoaren 5 eta 8an urte berriei eutsi, nahiz eta gaztetasuna poliki atzean utzi zuek bezalakoak gutxi. Etxekoak



Martxoaren 1ean 19 urte beteko dituk **Mikel Ibarreta.** Segi ezak betiko moduan juerga gogoan. Zorionak eta animo! Zure lagunak.



Zorionak **Tere Garmendia!** Joan den otsailaren 24an ez hitzanan azaldu. Txikia ezagutzeko gogoia ere badinagu. Ea ba Lazkaotik hona etortzen haizen.

Jaiotzak

Txomin Bordagarai
Martija
(1998-02-12)
Zubieta

Eider Begiristain
Espina
(1998-02-15)
Aginaga

Hildakoak



1998-02-17
Klara Basurto Illaramendi
91 urte
Kalezar

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua! Kultur Elkartea. Kale Nagusia, 37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa) Tlf. eta faxa (943) 36 03 21. e-mail: mandio@redestb.es

Zuzendaria:

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Garikoitz Udabe.

Kolaboratzaileak: Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Nieves Aranburu, Luis Aranalde, Zalao Arnaiz, Maribi Árrospide, Agurtzane Solabarrieta, Joseba Pellejero, Joxe Aginaga, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Agustín Esnaola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga eta Begoña Arriaga. **Administrazioa:** Arantxa Usaralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino. **Erredakzio Kontseilua:** Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua:

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez. **Dokumentazioa:** Idoia Agirre. **Informatika:** Pili Lizaso.

Banaketa: Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker Muguruza.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola.

Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua:


SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia:

Antza, Industrialdea 1 - 2, 20.160 Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



“Medikamentazoa”

Isidoro Iturralde

Botikaria

Erdaraz “azo” amaiera duten hitz guztiek gauza haundiaren esanahia dute, bortitza, zerbait gogorra adieratzen dute. Hor daude, “golphazo”, “tortazo”, “cuartelazo”, “volantazo”... moduko hitzak eta kasu honetan medikamentuari iritsi zaio bere txanda.

Espainiako gobernuko osasun sailak 800 sendagaitik gorako zerrenda bat egin berri du. Zerrenda horretan agertzen diren sendagaiak Seguridade Sozialak ez ditu bere gain hartuko, hau da, gaixoak bere osotasunean ordaindu beharko du medikamentu horren balioa. Zerrenda talde terapeutikoen arabera egin da: laxante guztiak zerrendan daude. Honela, askotan erabiltzen diren Duphalac, Oponaf edo Enema Cassen moduko sendagaiak ordaindu egin beharko dira; Expektoranteen multzoa ere hor dago, Flimucil, Mucosan etab., odoluzkien aurkako pomadak...

Norengan izango du eragina erabaki honek? Seguridade Soziala erabiltzen duten guztiak dira kaltetuak, baina pentsionistak bereziki. Medikamentuak erosterakoan, xentimorik ez ordaintzetik bere balioa osorik ordaintzera pasako dira.

Datorren udaberrian indarrean jartzekotan den neurria hartzerakoan, Espainiako gobernuak Seguridade Sozialetik eza-

batu diren sendagaien eragin-kortasun terapeutikoa oso txikia eta zalantzakorra dela esan du. Errealitatean, mugagabeko eraginkortasuna duen medikamenturik ez dut ezagutzen. Guztiek dute eraginkortasun mugatua. Sendagai hauen eraginkortasuna zalantzazkoa bada, Gobernuak merkatutik ken ditzala.

Medikamentu hauek Seguridade Sozialetik kentzearen arrazoia gastuak aurrezteak da. Gastu hau eragiten duten bi faktore nagusi daude: alde batetik, Seguridade Sozialako pentsionisten kopurua gero eta haundiagoa da eta bizitzaren zati honetan behar dute botika gehien; beste aldetik, biztanleriaren bizi itxaropena gero eta haundiagoa da, medikuen zainketari eta medikamentuei esker gure adinekoak urte gehiago bizi dira.


Hau ikusita, farmazia arloko gastuek gorantz joan behar dute. 1992an indarrean jarri zuten “medikamentazoa”k aurrezpenik ez zuen ekarri, diru hori Seguridade Sozialean zeuden sendagai garestiagoak finantziatzera bideratu baita.

Honen inguruan sortu den ikamika izugarria izan da, baina zerrenda orraztea eta erabakia indarrean jartzekoan atzerapena besterik ez da gertatuko. Bizi ikusteko!

Azala: alkatearen aurkako epaiketa



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

390
barkide ditu Noaua!k.
Zu ere egin zaitez
barkide

ika-mika

EAJ-PNV ERANTZUNEZ

Noaua! hamabostekariaren 36. zenbakian PNVk Usurbilgo udalaren aurrekontuei buruz esandakoen inguruan, gure iritzia azaldu nahi dizuegu.

Lehenik eta behin zera esan nahi dugu, Noaua! aldizkaria ez zaigula iruditzen tresna egokiena horrelako gauzak azaltzeko, egokiagoa iruditzen zaigula horretarako sortuta dauden guneak erabiltzea: udal batzarrak, batzordeak, bakoitzaren aldizkariak...; baina horrek lana exijitzen du eta azken hiru urteotan PNVko zinegotziek udalari eskaini dioten denbora eskasa ikusirik, ez dirudi horrelakoetarako ahalmenik dutenik.

PNVri erantzunez, egia da emendakin txiki batzuk sartu zituela, baina dirutan, aurrekontuen %1era ez dira iristen beraien diferentziak; hala ere, eta hori ere esan behar da, emendakin hauek epez kanpo izateaz gain, mamitu gabeak dira. Gure ustez udalari eskaintzen dioten dedikazio eskasa

justifikatzeko eginak dira. Eskutitz honetan, emendakin bakoitza banan-banan aztertzea astuna egin daiteke, eta gainera ez dugu horretarako lekurik, baina mamitu gabeak direla ikusteko adibide bat jarriko dizuegu.

PNVk bere idatzian ez badu dipatzen ere, bere emendakin batean, guk Kalezarreko parkeko lurak erosteko izendatutako 1.500.000 pezeta kentzea eskatzen zuten. Ez dakigu non oinarrituko ziren horrelako erabakia hartzeko baina jakitea gustatuko litzaiguke; Kalezarko ume eta gurasoei hori argitzea ez litzateke idea txarra izango.

Kalezartarrei argi esan nahi diegu: lur horiek erostea ez da erraza izango, markesa baitaigo tartean, baina gogoz saiatuko gara. Horretarako harremanetan hasi gara dagoeneko; ea zorte piska bat dugun eta urtea bukatu baino lehen Kalezarko umeentzat parke txiki bat moldatzen dugun.

USURBILEK GOIZETAN ERE LIBURUTEGIA BEHAR DU

Usurbilek liburutegi bakarra dauka eta hau udaletxean dagoena da. Astegunetan arratsaldero eta asteazken goizetan bakarrik irekitzen da, asteburutan berriz, hamabost aldiro larunbat goizean.

Hau dela eta, goizez ikasi behar duten ikasle askok Usurbil inguruko herrietako (Lasarte, Donostia...) liburutegietara jo behar izaten du, eta azterketa garaitan askotan lekurik gabe geratu ere bai, beranduegi iristen direlako.

Gainera, arratsaldean ikastolako haur asko joaten dira etxeko lanak egitera edo talde lanen bat prestatzera, hori dela eta ixiltasun falta eta leku falta haundia egoten da.

Goizez ireki ezkerro ikasleez gain, libururen bat kontsultatu nahi duen jendea, adineko jendea, gurasoak, irakurtzeko zaletasuna duen edonor... joan daiteke.

Usurbilgo H.B.

O.M.



Inauteriak gora, inauteriak behera, txantxilo ere Usurbil aldean ibili omen zen larunbatean. Ez ote zen moztortutako norbait izango? Zuek atera kontuak. Guk behintzat argazkia atera genion.

OHARRA

Berandu, baino iritsi da 37. alea. Espero ez genituen arazo tekniko batzuen erruz ezin izan dugu zegokion egunean banatu. Oraingoz barkatuko diguzuelakoan...

P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

MAHUKA

GAZTE DENDA



%50 eka
deskontua

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009




GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Berriketan



JOXE JUAN BEREZIARTUA MAIOZ

Aginagako "Mutiozabal" baserrian bizi da, nahiz eta jaiotzez "Etxeberri"koa izan. 84 urteak beteak baditu ere, oraindik sasoiaren du kopletan eta kantari aritzeko. Bestetik, ezin du ezkutatu Oria ibaiarekin duen lotura berezia.



"Errio-zakurra" deitzen zizuten. Zer dela eta?

Arrantzaren frogaren ugari asko egin behar izaten dira etekina ateratzeko, horrela ikasten baita.

Hori egin nuen nik, ordu asko pasa bertan. Horregatik izango da. Eta hau ongi egin ezker, bertatik ere bizi daiteke. Gaur egun ere, sasoiaren izango banu, egingo nuke. Orduan baserriak ez zuen gehiegi ematen eta ez zegoen beste erre-medorik. "Txanpon berria" asko estimatzen zen.

Arrantzaren iaioa, baina aingiretan maixu.

Beno, hainbesterako ere ez da izango. Garai hartan gutxi ginen aingiretan ibiltzen ginenak, eta beharbada horregatik izan dut erreztasun hori arrantza honetan.

Nola harrapatzen zenituzten ba?

Txitxare gorriarekin. Kotoizko kordaren puntan jartzen genituen eta ederki asko inguratzen ziren aingirak! Oso garrantzitsua da korda hori oso gogorra ez izatea, aingirak kosk egitean errazago libratzen baitira soka mota honekin.

Eta garai egokirik ba al da horretarako?

Bai, gauez eta lainotuta dagoenean. Izan ere, lainotu gabe badago zerua, izarren dir-dira uraren gainean islatzen da eta horrela zailagoa da aingirak uraren goiko aldera etortzea. Honetaz gain, ura pixka bat zikina dagoenean ere errazagoa da aingirak harrapatzea, zikin pixkat ere gustatu egiten baitzaie arrain hauei.

Baina Orian, aingiraz gain, beste hainbat arrain ere izango ziren.

Bai, noski. Europako ibairik aberatsenetakoa omen zen. Bertan, aingirak, angulak, lupiak, izokinak, ixkirak, bardoa, txirlak... denetatik geneukan bertan.

Arrantzaz gain, ordea, lantegian aritu zinen, ezta?

Bai, Michelinen 41 urte egin ditut lanean. Gogoratzen naiz zuzendariak Clermontera (Frantziara) bidali nahi izan ninduen hartakoa. Nyloneko beste sail bat irekitzekotan zen Lasarteko lantegian eta ni bidali nahi ninduten hara ikastera. Hasieran ez zitzaidala gehiegi interesatzen esan nuen, gauez arrantzaren egitea gustatzen zitzaidalako eta ondo nengoelako horrela. Baina eskeintza oso ona izan zen eta azkenean bi hilabete pasa nituen bertan.

Aurtengo negua nahikoa arraroa doa. Asko aldatu al da eguraldia?

Egia esan behar bada bai. Gaur egun horretara bakarrik jarriak dauden pertsonak daude, baina erditan ez dute asmatzen ze eguraldi egingo duen. Gaur egungo hego haizeak ez dira normalak, astebete ere egiten du eta! Bestetik, neguan ere hotz gehiago egiten zuen jarraian. Elurra egitean ere, aste bete igarotzen zen hura desagertu arte. Orduan azeri larrua zen onena lepoa berotzeko, eta ez orain bezala, ezer gabe ateratzen dira eta!

Eta euria?

Lehen urtean hiru aldiz estaltzen zen urez Aginagako erribera. Gogoratzen naiz nola Ferrolen soldaduzkan nengoela, 1933. urtean, egunkaria hartu eta Troian uholdeak izan zirela irakurri nuen. Lehen euri gehiago egiten zuen, orain aldiz gehiago izaten da bapateko eurijasa bortitza.

Irakurtzea afizioa al duzu ba?

Bai, betidanik izan dut gainera afizio hori. Gaur egun ere *Noaua!* goitik behera irakurtzen dut.

XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
IOSU
Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa
37 19 54

INDUSTRI ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

TXOKOALDE

Gure geltokia oroimenean

Joxe Aginaga



Honezkerok angulak desagertuko ziren ibai txoko hauetatik. Entzun dut, bai, aurten inoiz baino gutxiago harra-patu dela. Normala. Angula harrapatzaile asko, angula gutxi eta gainera ura zikina. Gogorutzen dut oraindik ura garbi-garbia egoten zeneko garai hura. Mutil kozkorak han ibiltzen ziren aurrera eta atzera igeri. Ni ez nintzen haietakoak. Oria ibaitik gertu bizi izan naiz beti, Illunben, baina urarengandik urruti gehienetan. Atera kontuak, igeri ere ez nuen ikasi. Urari beldur haundia nion eta orain ere... Hala ere, oraingo ura,

zer kolorekoa da ba oraingo ura? Lehengoarekin konparatu ere ezin da egin.

Eta esnea Donostiara eramaten genuenean? Zenbat esne eraman ote dugu



Donostiara? Orduan trenean joaten ginen bai Donostiara eta bai Usurbila. Geltokia kendu zuten ba, eh! Hura kendu zutenetik apenas hemendik ateratzen garen. Lehen kotxe eta autobus gutxi zegoen, orain berriz...

Gogorutzen naiz aginagarriak gure geltokira nola etortzen ziren trenea hartzera. Gauza guztiek aurrera egiten dute, eta orain denek kotxea erabiltzen dute ahal den gehiena. Bi pausotara dagoen lekura joateko ere kotxea erabili behar, hau da komeria! Zeinen ondo joaten ginen gu trenean.

KALEBERRI

Inauterietan alaitasuna nagusi

Itziar Aizpurua



Inauterietan kolore berezia hartzen du Kaleberrik, eta aurten ere ez du hutsik egin. Ostiralean Udarregiko umeen ikuskizuna izan zen. Goizean panaderia amaren esku utzi eta 11.00ak aldera frontoira buelta bat eman nuen, gure txikia eta beste denak ikusi asmoz. Kalean gora joan eta frontoira iritsi aurretik, begibistakoa zen han zegoen festa. Eserlekuetan tokirik ez eta jendea barra-barra. Argazki makinak, bideoak... denetik ikus zitekeen.

Umeen festa polita izan zen oso. Urtero zerbait desberdina egiten dute eta ez dira asperetzen gainera. Ume txikiak eta

ez hain txikiak dantzan, antzerkia egiten, zilipurdika... gustora egon ginen hari begira.

Larunbatean, berriz, musika-riak leku guztietatik. Goizean goizetik hasi ziren gainera. Txaranga bat hor ibili zen tirri



eta tarra gora eta behera. Aurpegi ezagunez osaturiko txaranga zen gainera. Han ibili ziren Roman da konpania, oilaskobiltzaileen moduan kalez kale.

Txantxilo ere ez zen urruti ibili. Donostia utzi, organiloa, dirua jasotzeko potea eta bere motxila mugikorra hartu eta gure panaderiaren inguruan ibili zen.

Bukatzeko gauza serio bat. Izan ere, zenbait herritarrek denuntzia jarri diete otsailaren hasieran erre zuten kotxearen jabe eta senitartekoei, ondorengo egunetan hauengandik jaso zituzten mehatxu eta irainengatik.

ATXEGALDE

Espaloiak ez al dira ba oinezkoentzat?

Zaloa Arnaiz



Gure auzo "maitagarri eta baketsu" honetan kotxeak aparkatzeko lekua egon arren, auzotar askok (tartean kanpotarrak ere bai) ez dituzte aparkalekuak behar den moduan errespetatzen. Aparkalekuetako marrak eta kotxeak aparkatzea debekatzeko duen marra horia pintatu zituztenetik denbora dexente pasa da. Badirudi batzuentzat honek ez duela inongo garrantzirik, nahi duten lekuan uzten baitute kotxea.

Denok kotxea etxeko ataritik gertu utzi nahi izaten dugu eta ezin dugunean ahal den gertuen uzten saiatzen gara, bes-

teen kalterako bada ere. Kasu honetan kaltetuenak oinezkoak izaten gara, askotan espaloietatik ezin baitugu ibili, kotxeren bat beti egoten baita oztopo egiten. Eta zer esanik ez espaloien egoerari buruz! Dagoeneko batzuk hondatzen hasiak dira.

Egunero auzoko kaleetan egoera hau ikusten dugu eta badirudi gero eta gehiago direla espaloiak aparkaleku moduan erabiltzen

dituztenak. Beharbada, norberaren kalean kotxea aparkatzeko lekurik ez dagoela egia izango da, baina auzoan kale gehiago badaude eta egun batean edo bestean etxetik urrun uzten badugu ere, ez zaigu zerua burura eroriko.



KALEZAR

Haranereren itxuraldaketa

Ainara Uribe



Harane futbol zelaiak beste itxura du orain. Benetan esaten dizuet. Aspaldi ez zaretela gerturatu? Ezagutu ere ez duzue egingo behar-

bada. Futbol zelaia bera da, bai, pixka bat txikiagoa agian, baina ingurunea bapo aldatu da. Aldagelen aurrean, lehen esan nuen moduan, galipota

bota dute eta orain areto futboleko zelai bat eta atletismorako kale batzuk marraztu dituzte, koloretan gainera.

Honez gain, aldagela gainean, aparkaleku dotoredotorea dago orain, nahi

adina lekurekin.

Bestalde, orain konpontzen ari diren eskailerak baino haruntzago, errepide nagusian ilara luzeak izan omen dira azken egunetan. Dirudenez, mendi izkinetatik harriak errepidera ez erortzeko jarri zuten sarea berritzen ibili dira. Txikiertatik gertuen dagoen mendi zatian jarri zuten lehendabizi eta Troia baino lehenagokoetan jarri omen dituzte gero.

Guzti honek, errepide nagusian ilara luzeak sortu omen ditu eta batzuetan Ostapeko zubiaren parean ere ikus zitezkeen kotxe ilara.



SANTUENEA

Agurtzane Solabarrieta



Uholdeen mamua auzoen artean

Santuenetik Urdaiagara doan bidea kronika honen abiapuntu bihurtu zait berriz ere. Ingemarren betelaneke bihurtune handia baino lehen dagoen bide ertza, udalak jarritako kono

batzuek adierazten zuten. Izan ere, ekainaren 1ean izandako lurjauzien ondorioz bidea estututa gelditu zen.

Bide zati horretako arriskuaz jabetuta konpontze lanetan ibili dira azken egunetan. Horretarako, kotxeak gora eta behera ibil ez zitezten, egun batzuek bidea moztuta izan dute. Beraz, Urdaiagara joateko Irabiko erribertatik Txokoaldera joan eta hemendik gora joan beharko dute santuenetar guztiek.

Azken egun hauetan kexa ugari entzun dira Santueneko sarreran aparkatuta dagoen kamioi bat dela eta. Beheko errepidetik datozen kotxeek, kamioiaren tamaina handia dela eta, ez dute zubitik barrena datozen kotxeak ikusteko aukerarik.

Auzoen ustez, kamioi hau behar den lekuan aparkatzen ez badute zerbait larria gerta liteke datozen egunetan. Istripu edo ezbeharren bat gertatzean, orduan alfer-elferrik izango da negar egitea. Kamioia behar den lekuan aparka dezatela. guztion mesederako izango da.



URDAIAGA

Maribi Arrospide



Hotzik ez eta bero gehiegi

Otsaila ere joan da isil-isilik. Urteroko hilabeterik motzenak ez du asko iraun. Eta eskerrak! Izan ere egin duen beroarekin... Ez da bate-re normala izan otsailaren

hasieratik hilaren 20a arte egin duen eguraldia: beroa, beroa, eta beroa eta hotzik batere ez. Urdaiagan ez behintzat. Otsailaren azkenera arte termometroa ez da 10 gradutik behera pasa.

Orain zer udaberri egingo ote digu? Batek daki, baina orain arte izan dugun panorama-ekin ez batere fidatu.

Eguraldi kon-

tuak baztertu eta ni baino gehiago dakien batek zenbait kontu pasa dizkit.

Batetik, Urdaiagako depositeoaren parean, hor nonbait, kate pribatuak ikusteko antena jarri behar omen dute. Hor behekoek, Txokoaldekoek ez omen zituzten kate pribatu hauek hartzen eta antena honekin mejora handia izango omen da.

Bestetik, Santuenetik gorako bidea itxita egon da egun batzuetan. Bide bazterrak konpontzen ibili omen dira, harri bat edo beste behera erori zaien arren. Ezer gertatu ez zenean denok kontentua, bai horixe!



AGINAGA

Oporretara Benidorrera

Aurten iaz baino berandua-
go, baina Arrate zahar
egoitzako jubilatuek urteko
batzarra egingo dute datorren
martxoaren 8an. Lehendabizi,
10.30etan meza nagusia izango
da. Ondoren, 1997. urteko diru-
kontuak onartu eta urteko kuotak
onartzea izango da batzar-
raren hurrengo lana. Aurten
ere bazkaria izango da.
Batzarreko trago txarrak pasa-
tzeko zer hobe bazkaltzea
baino! Bazkari honetara joan
nahi duenak Arrate egoitzan
bertan eman beharko du izena
ahal den azkarren.

Bestalde, bidaia bat egiteko-
tan ere badira Arrateko jubila-

tuak, eta ez nolanhiko bidaia
alajaina. Benidorren astebete
pasatzeko asmoa dute.
Oporralditxo hau apirilaren 13tik
20ra izango da. Bertara joan
nahi duten guztiek
Arraten eman dezake-
te izena. Bidaiaren bal-
dintzak, prezioak...
Arrateko panelean aur-
kituko dituzue.

Azkenik, eta amaitze-
ko, Aginagako eskola-
ko hurrek, Santueneko
eta Zubietako eskoleta-
ko ikasleekin batera
ikuskizun polita eskaini
zuten joan den otsaila-
ren 20an. Inauteriak

Iratxe Begiristain



zirela aprobeztatuz Euskal
Telebistan ikus daitekeen
Euskaraokearen antzeko zerbait
antzeztu zuten Aginagako zine
aretoan.



ZUBIETA

Trikuharri bila, auzolanean

Joan den larunbatean le-
hendabiziko saioa egin
genuen trikuharri bila auzola-
nean. Trikuharria harrizko losa
haundi batzurekin osatutako
monumentu aintzina-aintzina-
koa da. Aterpe itxura du; zuti-
kako harlosen gainean, txape-
la modura, beste harlosa ha-
undi bat duena. Zutik ipinitako
harlosa horiek itxitura egiten
dute alde guztietara, eguzki
aldera izan ezik; ekialdetik
zabalik baitute sarrera. Orain
dela 3000 urtekoak omen dira,
aurren aurreneko artzain eus-
kaldunen garaikoak.

Larunbateko auzolanean, tri-
kuharriak bilatu eta beren
inguruko sasiak eta zikinak gar-

bitzeko asmoa eraman
genuen. Hasteko ederki bistan
dauden bi trikuharri eman
genien errepassoa: bata
Arkutxan eta bestea Olaikon.
Gero Juanasoroko trikuharria-
ren bila abiatu ginen eta,
dexente kostata izan bazen
ere, azkenean aurkitu genuen.
Erabat oteak estalita zegoen.
Hura nontsu zegoen jakin
ezean ez genuen berehalako-
an aurkituko! Arrastada bat
eman genion eta orain edo-
nork topatuko du trikuharria
Juanasoroko gainean. Halere,
bada oraindik zer txukundu
Zubietan ditugun hiru trikuha-
rriotan. Datorren larunbatean,
otsailak 28, arratsaldeko

Xabier Arregi



15.00etan, Zubietako plazan
elkartuko gara beste saio bat
egiteko. Ez da inor derrigor-
tzen, baina ongiatorriak izan-
go dira auzolanean parte
hartu nahi duten guztiak.
Trikuharriei buruz dakiguntxo
eta merienda eskaintzen da;
eskatu, ordea, borondatea
besterik ez.

Pelota kontuak ere hasi dira
zabaltzen zubieta aldean.
Albiste onak heldu dira, gaine-
ra: Zugastiko **Imanol eta
Joseba Aizpurua** anaiak
Gipuzkoako ezker-paretako
finala jokatzeko sailkatu zaizki-
gu. Amasako frontoian jokatu-
ko dute martxoaren 1ean goi-
zeko 10.30etan.

Uholdeek eragindako kalteen konponketak

Ekainaren leko uholdeak gertatu zirenetik ia bederatziratsi hilabete pasa badira ere, euriteek eragindako kalteen zenbait konponketa orain bideratu ditu udalak. Herriko auzo desberdinetan egingo diren obra bakoitzeko gutxienez hiru aurrekontu eskatu ondoren, konponketa lanak enpresa desberdinei eman zaizkie. Hala ere, zenbait lan Madriletik zuzenean emanak etorri dira.

Guztira sei obra egingo dira datozen hilabeteetan. Horietatik bi, uholdeen ondorioz kalte haundienak jasan zituen auzoan, Txokoalden, burutuko dira. Bertako kaleak garbitu, bidea asfaltatu eta urbanizazioa txukuntzeko Teide enpresako langileak jardungo dira lanean. 39.426.437 pezetako aurrekontua izango dute lan hauek. Bestalde, Erroizpeko presa garbitzeko

Urbanizazio lanak egiteko udalak obren kostu osoaren %25 ordainduko du. Beste %25a Eusko Jauriaritzak eta gainontzekoa Espainiako gobernuak. Nekazal guneetako lanetan, aldiz, %20 ordainduko du udalak.




dago oraindik. Presa guztia harriz bete zen ekainaren 1ean, eta bere horretan dago ordu ezkerotik. Beraz, 46.487.623 pezetako aurrekontua duen obran, Otegi eta Gaztañaga enpresak arduratu beharko du presaren txukuntzetaz, gero, Erroizpeko presatik berriz ere ura hartzeko aukera izan dadin..

Altuna eta Uria enpresari beste bi konponketa lan eman dizkiote. Udarregi ikas-

tolan egin beharreko pareta, 6.105.437 pezeta eta Punta-paxen egin beharreko saneamendu, pabimentazio eta bestelako obrak, 3.029.570 pezeta.

Azkenik, Zumitzaga igeltseroari dagokio Etxealdia eta Santuenean egin beharreko lanak burutzea. Bi lan hauen aurrekontua sei milioi ingurukoa izango da. 3.000.000 pezeta lehenengoarentzat eta 2.800.000 inguru bigarrentzat.

Lan hauek udala, Eusko Jauriaritza eta Espainiako gobernuaren artean ordainduko dituzte. Urbanizazio lanean udalak kostu guztiaren %25a ordainduko du, beste %25a Eusko Jauriaritzak eta gainontzekoa udalak. Nekazal eremuetan egiten diren lanen kostuei dagokionez, berriz, 20 ordaintzea udalari dagokio, Eusko Jauriaritari beste %20a eta Espainiako gobernuak ordaindu beharko gelditzen den %60a



ZENDOIÀ-ENEA

TABERNA

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25 60



**ZUMETA
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburukoan dastapena
- Ogia eta kafea 3.475 pta. (bertsonako)

ANDONI


PINTURAK

**Barnelanetan
espezializatua**

Itxasku-berri baserria
Usurbil

36 13 18

Otsailaren 24ko plenoan esandakoak...



Telebista kate pribatuak emititzen hasi zirenetik denbora asko pasa da. Usurbildar gehienok kate hauek ikusteko aukera izan dugu, baina ez guztiek. Txokoalden eta Aginagako zenbait txokotan ez dira bi kateen seinaleak hartzen eta beste leku askotan oso gaizki ikusten dira bi kate hauek. Udalak, kate pribatu guztiak auzo guztietara iritsi daitezen Retevisionekin harremanak izan ditu eta azkenean, beharrezkoak diren ekipoa jartzeko akordio batera iritsi dira. Bi antena jarriko dituzte: bata San Estebango ur depositoarengatik inguruan eta Aginagan, kanposatuaren ondoan bestea. Bi antena hauekin batera, telefono mugikorrenzako antenak jarriko dira.



Aurreko alean Atxega jauregian 18 logelako Aostatua jarri behar zutela esaten bagenuen ere, subasta atzera bota behar izan du udalak. Adjudikazioa burutu baino lehen alegazio bat aurkeztu zuen Agumen elkarteak. Udalak Atxega jauregiaren errenta urteko 100.000 pezetatan finkatu bazuen ere, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean errenta hileko 100.000 pezeta zela agertzen zen. Beraz, adjudikazioa bertan behera utzi behar izan du udalak. Orain, epe laburrean, lehiaketa berri bat irekitzeko asmoa du udalak eta Atxega jauregia errentan hartu nahi duen edonork urteko 100.000 pezeta ordaindu beharko ditu. Enkantea izan beharrean lehiaketa izango da.

ZORROTZEKO ZUBIA

Zorrotzeko zubiaren zabaltze lanak Sukia enpresari adjudikatu zaizkio. Aurrekontuaz gain obrak egiteko epea ere kontutan hartu da. Sukia enpresako ordezkariaren esanetan maiatza bukaerarako obrak amaituta egongo dira. Espaloia jarri behar ez den petrila ere berri-tingo da. Enpresari, bidea itxita ahal den gutxien edukitzea eskatuko zaio.

ZABOR ZERBITZU HOBEA

Zabor bilketa zerbitzua hobetzeko proposamena onartu da. Martxoaren hasieratik aurrera Txokoalden eta Aginagan ere zabor zerbitzua izango da. Martxoaren 2tik aurrera zaborbiltzaileek Aginaga eta Txokoaldeko zaborrak ere bildu beharko dituzte. Zerbitzu hau orain arteko zaborbiltzaileek egin beharko dute.

ARAU SUBSIDIARIOAK

Udalak arau subsidiarioen berrikustea onartzea erabaki du. Usurbilgo arau subsidiarioek zortzi urte daramatzate bere horretan eta horren ondorioz, berrikuste plana egitea behar-beharrezkoa ikusi du udalak. Berrikustea bi urte-tan egingo da, 6 hilabeteko lau zatitan banatuta. Aurrekontua 20-21 milioikoa da.

Haur jantziak

Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43

TABERNA

Goiz goizetik gosariak

7 t'erdietan irekitzen dugu

Iraza kalea, 12 Tlf: 36 02 17

Zinkildegia

Lentzeria, gizonezkoentzat arropa, haurren jantziak, etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behea, 20170 Usurbil

Ikastetxeetan matrikulatzeko garaia

Urteko hilabeterik motzena amaitzeaz dagoenean ikastetxeek matrikulazioa epeak ireki dituzte. 1997/98 ikasturtea oraindik amaitu gabe, datorren ikasturteari begira ikasle berrientzat matrikulatzeko epea zabalik dago bai Udarregi ikastolan, bai Agerialde ikastetxean, bai Aginaga, Zubieta eta Santueneko herri eskoletan ere.

Usurbilen jaiotako haurren kopuruak gorabehera haundiak izan ditu azken urteetan. Orain dela 15-20 urteko jaiotza tasarekin konparatuta orduko kopuruetara iritsi ez bada ere, azken lau urteotan Usurbilen jaiotako haurren batezbesteko kopurua 45ekoa da. Guzti honen eragina nabarmena izan da ikastetxeetan. Lehen Agerialden eta Udarregin, adin bakoitzeko bi izaten baziren ere, orain egoera zeharo desberdina da. Udarregi ikastolan maila bakoitzeko bi gela mantentzen dira baina Agerialden oso ikasle gutxi dago momentu hauetan. Eta berdin gertatzen da Aginaga, Santueneko eta Zubietako eskoletan.

Udarregi ikastola da hezkuntza garai guztiak eskaintzen dituen Usurbilgo ikastetxe



bakarra. Hasiera batean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H) eman ez bazioten ere zuzendaritza batzordeak egindako lanak bere fruituak eman zituen.

Juanjo Gomez Udarregiko zuzendariaren esanetan, *"Udarregik D.B.H. lortzea oso garrantzitsua izan da guretzat. Kontutan hartu bigarren hezkuntza lortu izan ez bagenu 6. maila egin ondoren 13-14 urterekin kanpora irten beharko luketela. D.B.H.rik gabe egongo bagina Usurbilek ere asko galduko zukeen. Orain, ikasleek bigarren hezkuntza hemen egiteaz gain, irakasle plantila ere ugartu egin da".* 1997/98 ikasturtean 431 ikasle daude Udarregi ikastolan, 133 haur hezkuntzan, 176 lehen hezkuntzan eta 120 derrigorrezko

bigarren hezkuntzan. Usurbil bere osotasunean kontuan hartuz, Zubieta, Aginaga eta Santueneko gelak barne, Udarregik ikasleriaren %70a eskolatzen du.

Agerialde eskola publikoaren egoera zeharo desberdina da. Azken urteetan beherakada nabarmena izan du. Bigarren hezkuntza egitera Lasartera, Landaberrira, joan beharrak eraginik izan badu ere, hezkuntza sistema berria jarri aurretik, matrikulatutako ikasleen kopurua jeitsiz zihoan poliki-poliki. 1996/97 ikasturtean 75 ikasle zituzten, 13 haur hezkuntzan, 33 lehen hezkuntzan eta 28 D.B.Hn, Landaberrin. 1997/98an, ordea, ikasle gutxiago dago. Haur eta lehen hezkuntzan 22 ikasle besterik ez daude.

Zubieta, Santuenea eta Aginagako eskolak ere hor daude. Zubietan, lehen hezkuntza 2. maila arte emateko aukera badute ere, 8 ikasle daude, guztiak haur hezkuntzan. Santuenean haur hezkuntza ematen dute eta 10 ikasle dituzte aurten. Aginagako eskolan, berriz, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikasleekin ari dira lanean, 10 ikaslerekin hain zuzen ere.





AGERIALDE

herri ikastetxea

1998-99 ikasturterako aurre-matrikula



Epea:

**Otsailaren 26tik
martxoaren 11ra**

Ordutegia:


Arratsaldeko 16etatik 17ra

D eredua:

**Haur Hezkuntzan eta
Lehen Hezkuntzako 1.ºo
eta 2.º zikloan**

B eredua:

**Lehen Hezkuntzako 3.
zikloan**



Telefonoa: 36 38 95

11 urte intsumisioarekin kolaboratzen

Udalak estatu espainiarreko ejerzitoarekin ez kolaboratzeko erabakia hartu zuenetik ia 11 urte pasa dira. Ordu ezkeroztik Defentsa Ministeritzatik gazteei soldaduskara joateko bidaltzen zaien gutuna berriz ere itzuli egiten du udalak. Jokabide hau urte guzti horietan errepikatu bada ere, 1994an udalak ejerzitoarekin ez kolaboratzeagatik epaitzen hasi dira Joxe Antonio Altuna alkatea. Urtebeteko suspensioa eta 100.000 pezetako isuna eskatzen du fiskalak. Hala ere hau hasiera besterik ez da. Datozen urteetan epaiketa gehiagori aurre egin beharko baitio.

Joxe Antonio Altuna alkatezara iritsi berria zen. 1987ko ekainean aukeratu zuten alkate. 1987ko azaroaren 24ko ohiko batzarrean Jarrai taldeak mozio bat aurkeztu zuen. Bertan zenbait puntu agertzen ziren. Besteak beste, "udalak espainiar ejerzitoarekin maila guztietan ez kolaboratzea eta alizatzeko zereginei, zentsuari eta orokorki orain arte ejerzito espainiarraren alde garatzen etorri diren zereginei uko egitea" eta "ejerzito espainiolak Usurbilgo lurretan egin ditzakeen edozein ekintza, maniobra etab. debekatzea" eskatzen zuten.

Batzar horretan hartu zen espainiako ejerzitoarekin ez kolaboratzeko erabakia, aurrez aipatutako bi puntuak onartu baitziren batzarrean. Lehenengo puntua Herri Batasunako sei zinegotzien aldeko botuekin eta EAko 4 zinegotzi, PSOEko 2 eta EAJ-PNVko zinegotziaren abstentzioarekin onartu zen. Bigarrenengo puntua, berriz, bertaratu ziren zinegotzi guztien adostasunarekin.



Joan den otsailaren 20an, Usurbilgo intsumitu taldeak deituta, alkatearen epaiketaren aurkako manifestazioa egin zen

1990. urteko ekainean, ordea, Gobernu Zibilak udalak hartutako erabakiaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen. Bertan, udalak ejerzitoarekin ez kolaboratzeko hartu zuen konpromezua baliogabetzea eskatzen zuten. Euskal Herriko Justizia Gorenko Tribunalak 1992ko urrian eman zuen sententzia udalaren aurkakoa izan zen.

1992an beste mozio bat onartzen da

Hala ere, sententzia ezagutu aurretik, 1992. urteko urtarrilaren 28an Usurbilgo talde antimilitaristak aurkeztutako beste mozio bat onartu zuen udalak. Mozio honetan antimilitarismoa, eragozpena, intsumisioa eta hauen inguruan dauden posturak babestu eta bultzatzen hasteko zenbait puntu onartzea eskatzen zitzaion udalari. Alde batetik, "udalaren izaera zibila azpimarratuz, bere garaian, 1987an, onartutako erabakia berriztatzea. Hau da, ejerzitoarekin kolaboratzeari uko egitea maila guztietan" eta beste aldetik, "Usurbil herri ez militarizatua izendatzea, ejerzitoari herriko

bideak erabiltzea eta herriko lur eremuetan maniobrak egitea debekatuz". Herri Batasuna eta Eusko Alkartasunaren aldeko botuekin, guztira 9 boto, onartu zen mozioa. Izan ere, PNV eta PSOEko 4 zinegotziek aurkako botoa eman baitzuten.

1987. urtean hartutako erabakia tribunalean bertan behera gelditu bazen ere, ordurako udalak erabaki berrari baiezkota emana zion eta azken mozio hau inork ez zuen errekurritu. Horregatik, azken 10 urtetan udala intsumitua izan da Espainiako ejerzitoarekiko eta 1992. urtean hartutako erabakiak indarrean jarraitzen du oraindik.

7 urteko intsumisioaren ondoren lehen idatzia

1994. urte arte ez zen Defentsa Ministeritzaren berririk izan. Udalak intsumisio izaten 7 urte zeramatzen eta urte honetan iritsi zen gazteen zerrenda bidaltzea derrigorrezkoa zela esaten zuen lehen idatzia. Udalari ejerzitoarekiko eginbeharrak betetzera behartuta zegoela gogorarazten zitzaion bertan. Izan ere, ejerzitoak

bidaltzen zituen dokumentu guztiak, berriz hauei bidaltzen zitzaizkien eta soldaduska egin behar zuten gazteen zerrendarik ez zitzaien bidaltzen. Honez gain, soldaduska egin behar zuten gazteek erreklutamendu zentrorra joan behar izaten zuten, eta dute oraindik, soldaduskara joateko trramiteak egitera.

1996. urteko abuztuan eskakizun bat iritsi zen Defentsa Ministeritzatik. Bertan, erreklutamendurako laguntza ukatze akordioaren ilegaltasuna zela eta, zera eskatzen zitzaion udalari:

-Erreklutamenduarekiko laguntza ezetzaren akordioa indargabetzea.

- Eskatutako urteko jaiotako gazteen zerrenda bidaltzea.

-Herritarrei ukatzen zaien zerbitzu publikoa jasotzearen eskubidea onartzea.

-Erreklutamenduarekin zerikusirik duten gazteei bidaltzen zaizkien agiriak betetzea

Urte bereko irailean udalak 1987 eta 1992an ospatutako udal batzarretan onartu ziren mozioak berretsi baziren ere azaroaren 5ean Ertzaintza bila etorri eta Donostiako Justizia Auzitegira eraman zuten epailearen aurrean deklaratu zezan.

Orain, 1994. urtean ejerjitoarekin ez kolaboratzeagatik epaitzen hasi dira alkatea. 1977. urtean jaiotako gazteen aliamendu zerrenda bidali ez izana leporatzen diote.

Urtebeteko suspensioa eta 100.000 pezetako isuna eskatu du fiskalak. Hala ere, datozen urteetan epaiketa gehiago izango ditu **Joxe Antonio Altunak**. 1995-96-97-98an Espainiako ejerjitoarekin ez kolaboratzeagatik ere epaituko baitute. Alkaterik gabe geldituko ote gara?

Josu Aranberri

Otsailak 26. Epaiaketaren hasiera



Euskararik gabe epaietarik ez

10.00: Joxe Antonio Altuna bere testigekin elkartzen da. Izaskun Maiz zinegotzia da bat, Iker Mugika soldaduska egin duen gaztea bestea.

10.30: Alkatea Donostiako auzitegian sartzen da testigekin batera.

10.50: Auzitegiaren aurrean, usurbildarrak kokatzen dira gure herria ez epaitu pankartarekin. Trikiti doinuak ere entzun daitezke.

11.10: 5. penalera sartzen dira. Tetiguak kanpoan gelditzen dira.

11.15: Aitor Garin, alkatearen abokatua hitzegiten hasten da. Begoña Argal epailea eta itzultzailea ikusi ditu. Berak itzultzailek ez duela behar

eta horregatik ez duela eskatu esaten du. Bere esanetan epaileak euskaraz egin behar luke, itzultzailearekin gauza asko bidean gelditu daitezkeela dio, interpretazio desberdina izan daitekeela. Beraz, epaile euskalduna eskatzen du. Fiskalak ez du abokatuak esandakoa onartzen.

11.25: Epaiak bertan behera utzi du epaiketa. Alkatearen defentsari uko egingen diola dio, abokatuak ezetz. Alkateari 3 egun ematen dizkio beste abokatu bat bila dezan. Bestela ofizioko bat jarriko diote.

11.40: Alkatea auzitegiaren kanpora atera eta pankarta atzean daudenak agurtzera doa.




Sua Galtzaragainako 3. zenbakiko atarian

Galtzaragaina 2ko 3. zenbakiko atarian sua izan zen joan den otsailaren 23an. Eguerdiko 12.30etan piztu zen sua. Sua zerk eragin zuen ez dago garbi, baina litekeena da sua buzoiak dauden lekuan hasi izana. Bertan kartoi batzuk zeudenaren susmoa dute zenbaki horretako bizilagunek baina ez dakite sua nola hasi zen. Zenbait auzotarrek estintoreak hartu eta ertzainak eta suhiltzaileak etorri baino lehen sua itzali zuten. Sutearen ondorioak nabarmenak izan ziren. 3. zenbakiko ataria, atea eta buzoiak erabat kiskalita gelditu ziren, Sua atarian izan arren, keak hartu zuen etxe osoa eta lehen solairu arteko paretak erabat belztuta gelditu ziren.



Harri haundi bat erori zen Sañarrienera



Susto ederra hartu zuen **Julian Arrospidek**. Sañarrienera kanpoko aldean lanean ari zela harri haundi bat erori, bera zegoen lekutik bi metrora pasa eta bere kotxearen atze alde jo zuen joan den otsailaren 18an arratsaldeko 17.30ak aldera. Excavaciones Igeldoko langileak Santuenetik Urdaigarako bide ertzean harri haundi batzuk jartzen ari zirenean, batek alde egin eta maldan behera Sañarrienera joan zitzaion. Bertan zegoen Julian Arrospide ez zuen jo baina bere kotxearen atze alde bete-betean harrapatu zuen.

Euskara asteazkenetako merkatuan


Joan den otsailaren 18an merkatura hurbildu jzinetenek zerbait berezia nabaritutako zenu-ten bertan. Alde batetik saltzaileen postuak izkinitan jarri zituzten, denak jarraian. Bestetik postu bakoitzean euskarazko idatziak ikus zitezkeen. Izan ere, euskararen aholku batzordeak bultzatuta postu bakoitzean saltzen dituzten produktuen izenak jarri dira, guztiak euskaraz. Merkatuko saltzaileekin egindako bileran, hauek ez zuten eragozpenik jarri eta hemendik aurrera izenak euskaraz jarriko dituzte.



N • U
Ileapaindegia

MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A
Telefona: 36 19 51



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

BORDATXO
EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42

**IKASLE ABERTZALEAK-EN
HERRI ESKOLA**

Ikasle Abertzaleak Herri Eskola Nazionala burutzen ari da Usurbilen. Otsailaren 27an, hasiera eman ondoren gaur eta bihar ere herrian izango dira Ikasle Abertzaleak-eko 300-400 bat kide. Ageralden hartuko dute ostatu eta hiru egun hauetan herri eskola bezala antolatu eta hainbat gauza egingo dituzte. Komunikazio arloa eta honekin batera beste hainbat gai jorrazteko aukera izango dute Euskal Herriko osotik etorritako gazteek.



Udarregi ikastolako haurren inauterietako jaialdiak arrakastatsua izaten jarraitzen du. Joan den otsailaren 20an herriko frontoian eskainitako saioa ikusteko jende ugari bildu zen. Ikastolako txikienen dantza erakustaldiak eman zion hasiera inauterietako saioari eta ondoren lehen eta bigarren hezkuntzako haurrek Erdi aroko maila desberdinak gaitzat hartuta dantza eta ikuskitun ezberdinak aurkeztu zituzten. Erregeak, pobreak, estatuak... mozorro ugari ikusi zen bertan.

MARTXOAK 8 EMAKUMENEN EGUNA

Usurbilgo emakumeek ere beraien eguna ospatzeko asmoa badute. Izan ere emakumeen eguna martxoak 8an bada ere, martxoak 7an izango dute urteroko festa, guztia We Can Do It (Egin dezakegu!) lemapean. Ugarte jatetxean elkartuko dira; lehenengo hitzaldia, ondoren afaria eta sorpresa dute gaueko egitaraua. Izena eman nahi duten guztiak martxoak 4a baino lehen Lizari edo Lauroketik pasa daitezke.



Komite Internazionalistak antolatuta, "Chiapas, entre el dolor y la esperanza" argazki erakusketa ikusgai egon zen otsailaren 9tik otsailaren 15a bitartean. Chiapaseko egoera eta bertan bizi direnen balore, indarra, maitasuna eta samina agertzea zen Udarregi zaharrean egindako erakusketaren helburua. Honekin batera Chiapasen bizi duten egoerari buruzko bideo emanaldia ere izan zen otsailaren 13an.



Hona hemen **Alfonso Vidal** gure Santueneko korresponsala. Zer egiten du hor? Etumeta euskaltegiko alfabetatze taldearekin dagoela dirudi. Izan ere, bera da alfabetatze taldeak antolatu duen lehiaketaren irabazlea. Jendearen euskara maila neurtu nahian lau proba egin ondoren, **Alfonso Vidalek** sagardotegi batean afaltzeko aukera izango du. Hala ere, txori txiki batek esan digu inork ez dituela galdera guztiak zuzen erantzun.

FABERNA
BASKARIAK
ETA AFARIA
Santuenea
Tlf. 36 27

Ekaitz

Bideo eta ARGAZKIak

Usurbil

tf 36 14 87

oiartzun

ALBORTA
HARATEGIA

Beheko kalea, 4
Atxegalde

36 57 42



Euskararen inguruko zenbait gogoeta

Euskararen egoera Usurbilen, bere normal-kuntza, independentzia-rekiko lotura... hauexek izan ziren joan den otsailaren 13an Euskal Herrian Euskarazek antolatutako mahainguruan landu ziren gaietako batzuk. Usurbilgo talde politiko guztiak eta euskalgintzan diharduten taldeak gonbidatuta bazeuden ere, mahaingurura gerturatu ziren lagunek Herri Bata-suna (Xabier Pikabea), Usurbilgo EHE (Nikolas Bengoetxea), Gazte Asanblada (Jon Rueda) eta EHEko liberatu baten (Jagoba Errasti) solasaldiarekin konformatu behar izan zuten.

Euskararen egoera Usurbilen eta Euskal Herrian

Xabier Pikabea: Azken urte-etako aurrerapausoak haundiak izan dira herriko arlo guztietan. Lehen euskalduna arrotz sentitzen zen udaletxera joaten zenean, baina 1989an euskararen ordenantza onartu zenetik ez da hori gertatzen. Euskalduna bertakoa balitz bezala sentitzen da eta erdal-dunei ere beren hizkuntza ematen zaie. Udaletik kanpo egiten ari den lana ere haundia da. Kiroldegian euskara normalizatu nahi da, merkataritzan ere bai, AEK eta udalaren arteko hitzarmenak bere fruituak eman ditu, enpresen iragarkiak euskaraz egiteko ahaleginetan ari gara, pe-diatra euskalduna lortu da...

Nikolas Bengoetxea: Euskararen egoerak hoberantz egin du, bai Usurbilen, baita Euskal Herrian ere. Azken urte-etan aurreapauso batzuk eman dira, baina oraindik, aurrera egiteko bide asko dago. Egoera ez da normali-

zatu, ez herrian ez Euskal Herrian. Lan munduan, Osakidetzan, epaitegietan... lan haundia egin behar da eta ez dugu lasaitu behar.

“Euskararen egoera ez da normalizatu ez Usurbilen ezta Euskal Herrian ere”
N. Bengoetxea

Jon Rueda: Euskararen egoerak hoberantz egin du, baina teoriarik bakarrik. Errealitatean, Usurbilgo egoerari begiratzen badiogu gazteen artean hutsune haundia dago euskararen erabilpenaren aldetik. Nahiz eta gazte gehienek euskaraz hitzegiten jakin, gazteen artean erdara asko erabiltzen da. Erabilpenaren aldetik hutsune haundia dago Usurbilen. Gazte Asanbladan euskaraz egiten saiatzen gara, askotan euskaraz hitzegin behar dela gogorarazi behar dugu, baina gero kanpora ateratzean beste mundu bat da.

Jagoba: Euskararen Usurbilgo eta Euskal Herriko egoera, orokorrean, berdina

denik ezin da esan. Euskal Herri osoa kontutan hartzen badugu, euskarak zapalduta jarraitzen du. Euskal Herriko toki askotan euskaldun izatea arrotza izatea da. Usurbilen egoera horri buelta eman zaion arren, euskara sekulako egurra jasotzen ari da leku guztietatik. Momentu honetan aurrerapauso garrantzitsuak behar ditu, Usurbilen aurrerantz doa, baina gizartean orokorrean ez. Azken finean, orain dela 20 urte baino hobeto egon arren gauza asko dago egiteko. Azken finean, euskaldun izatea militantea izatea da oraindik.

Euskararen normalkuntzarako urratsak. Independentzia al da euskararen normalkuntzarako bidea?

X. Pikabea: Pertsona batzuek uste dute independentzia edo lurraldetasuna lortzean hasi behar dela euskararekin lanean. Hau disparate ikaragarria da. Euskararen alorra galtzen goazen bezala gure independentzia galtzen goaz. Euskera eta independentzia batera doaz. Zenbat eta euskara gehiago erabili, gu geu, gure nortasunaren



jabe izango gara, besteekiko gehiago independizatu. Xalbadorrek zioen: herria da gorputza, hizkuntza bihotza. Bihotzik gabeko gorputza ez da inor, gorputzik gabeko bihotza inor ez den bezalaxe. Euskara eta Euskal Herria batera doaz. Independentzia lortzen bada, baina euskara ez den hizkuntza batekin, gure identitatea galduko dugu. Euskara da gu hori egiten gaituena eta ez beste ezer.

“Euskaraz ez dakien bat abertzalea izan daiteke”

X. Pikabea

N. Bengoetxea: Euskararen esparruan lan egiteko ez dugu independentzia lortu arte itxaron behar, ordu arte itxaroten badugu ez dugu ezer lortuko. Hala ere, independentzia aurrerapausoa izango litzateke euskararen normalkuntzan, borondate politiko ezak edo kontrako borondate politikoak normal-kuntza hori mugatu egiten baitute. Independentzia lortuz gero euskararen alde borrokan jarraituko da eta agian oztopoak gaindituko ditugu. Bitartean euskararen alde borroka egin behar da, jendearen inplikazioa gehitu.

Jon Rueda: Euskararen normalkuntza eta independentzia biak batera doaz, baina bata bestearen menpe jarri gabe. Euskara independentziarantz eramango gaituen bidea izan daiteke, euskararen alde lan egitea, azken finean, independentziaren alde apustu egitea baita. Independentzia helburua bada euskara lantzen jarraitu behar dugu. Agian euskara-

ren alde lan egitea gertuago ikusten den zerbait da.

Jagoba: Euskararik gabe ez dago Euskal Herririk eta Euskal Herririk gabe ez dago euskararik. Euskal Herriak bere hizkuntz prozesua nahi duen bezala antola dezakeela onartua dago, baina hori ez da gertatzen. Euskalduntze prozesurako tresnak ez ditugu, eta independentzia, horretarako bide argiena da, herri independenteeek beren esku baitituzte tresna guztiak. Euskararen normalkuntzan, bien bitartean, hiru urrats ikusten ditut: ofizialtasuna, irakaskuntza euskalduntzea eta komunikabide esparru propioa izatea.

Zer da euskaldun izatea? Abertzaletasuna eta euskara bereiz al daitezke?

X. Pikabea: Euskalduna euskara duena da. Euskara da adar baten muina, baina euskaraz ez dakien bat abertzale izan daiteke. Bilboko ezkeraldekoez euskaraz ikasteko modurik izan ez, baina aberri honen filosofiaren alde lan egiten badute, hoiek abertzaleak dira, nahiz eta euskaraz hitzegiten jakin ez. Erdaraz ari diren euskaldun peto-petoak, hoiek ez dira abertzaleak, beren oinarriaren aurka doaz. Euskalduna euskaraz dakiena, euskaraz egiten duena eta euskararekiko lanean ari dena da. Euskalduna abertzalea izan daiteke eta euskaraz ez dakiena ere bai, aberriaren

“Nahiz eta gazte gehienek euskaraz jakin, Usurbilgo gazteen artean erdara asko erabiltzen da”

J. Rueda

alde lanean ari delako eta gure filosofia ulertzen duelako.

N. Bengoetxea: Euskalduna euskara duena da bai, baina euskaldun bat euskararen kontra doanean, hori ez da euskalduna, euskararen etsai bat da nahiz eta berak euskaraz jakin. Nahiz eta euskaraz jakin ez, aberriaren alde lan egiten duen jendea badago, eta euskaraz jakin eta abertzalea ez dena ere badago. Abertzalea izatea eta euskaraz ez egitea inkoherentzi bat da. Horregatik inkoherentzi horiek baztertu egin behar dira.

“Abertzaleak euskaraz bizi nahi du, horretarako daukan guztiaz jarriz”

Jagoba

Jon Rueda: Bilbo aldean, adibidez, aberriaren alde lan egin eta gero erdaraz hitzegiten duen jende asko dago. Hauetako askok, euskaraz ikasteko dirurik ez dute, ikasteko ezintasuna dute... Hala ere, AEK-k dirurik ez duen jendearentzat ikastaroak antolatu eta gehienek hilabete pasa ondoren utzi egiten dute. Hauek gero abertzaletzat jotzen dute beren burua. Kontrakotasuna dago hor.

Errasti: Nik beti ulertu dut abertzaleak euskaraz bizi nahi duela, eta hori gauzatzeko bere aldetik daukan guztia jarriko duela. Hor badago euskalduna dena, euskara erabili eta bizi duena gizarte honek uzten dionean behintzat. Beste batzuk oraindik ez dira euskaldunak, baina euskalduntzearen apustua egin dute, beren sentimenduek horrela eskatzen dietelako.

Josu Aranberri

KIROL KOPLA



Jon Karbayeda

Usurbilgo txirrindulari eskola ez da lehengoa. Orain dela 10 urte inguru txirrindulari ugari zeuden Usurbilen, ez elitekoak, gazteak baizik. Infantilak, kade-teak, jubenilak... usurbildar askok hartzen zuen laisterketarako bizikleta.

Gaur egun, ordea, egoera zeharo desberdina da. Azpiko kategoriak ez daude, kadeteetan hasten dira laisterketak eta honek, herriko gazteak beste kiroletara desbideratzen ditu. Hala ere, oraindik badago Usurbilen txirrindulari taldea. Kadete eta jubenil mailan ibili den taldea izan da Dana Ona. Hortik atera zen Haimar Zubeldia eta Joseba ere iaz talde honetan aritu zen.

Denboraldi honetarako jende falta nabaria da. Bost txirrindulari besterik ez daude eta hauekin batera korriko lukeen jendearen bila gabilta. Herriko gazteei deia egin nahi diegu. 15-16 urtekoak behar ditugu kadeteetarako eta 17-18 urtekoak jubeniletarako. Deitu 36 61 97 telefonora.

David Asensio: "Disziplina"

Zein postutan dago taldea?

Lehenengo postuan.

Eta zuk zein postutan jokatzenu duzu?

Aurrelaria naiz.

Beraz, golak sartzeko postu ezin hobea...

Oraingoz 11 sartu ditut.

Dudarik gabe kirol mailan gustora egongo zarela, baina nola moldatzen zara Bilbo aldean?

Nahikoa ondo. Egia esan disziplina handia dago taldean eta asko kontrolatzen gaituzte, ia ez dugu denborarik ezertarako. Usurbilen nuen askatasuna falta zait eta lagunak eta familia ere faltan botatzen ditut.

Nolakoa da zure ohiko egun bat?

Goizean 6.30etan esnatu, gosalduta eta eskolara. Egoitzara bueltatu arratsaldeko 16.00ak aldera eta 17.00etarako Lezamara entrenatzera 19.30ak arte. Berriz bizi naizen egoitzara bueltatu, afalduta eta 23.00etarako, nahitanahiez, logelan egon behar dugu.

Elikadura ere kontrolatzen dizute?

Bai egunero pasta jaten dugu eta gainerakoa kontrolatuta.

Jakin dugunez Derioko egoitza batean zaude bizitzen...

Bai, maila desberdinetako Athleticeko 20 jokalar inguru gaude bertan. Nafarrak, araba-

David Asensio 17 urteko jokalaria da ohorezko Usurbilen egin bazituzte Antiguoko taldera joan zen. Bost den urtean izan zuen, Sporting Gernikaren begiak jarri zituzteneara joan zizaitzen, ez dago

erak, gipuzkoarrak eta bizkaitar batzuk. Egoitzan usurbildarra naitzen zelako "Usu" deitzen didate.

Taldean euskaraz egiten duzue?

Ezer gutxi. Nafarrek ez dakite euskaraz hitz egiten, horregatik egiten dugu euskaraz horren gutxi. Hala ere Mungia eta Ondarroakoekin euskaraz egiten dut.

Hurrengo denboraldiari begira, zein asmo dituzte?

Oraingoz Athleticean jarraitzea. Jubeniletan beste urte bat aritu eta gero gerokoak.

Zein da zure ametsa?

Athleticean lehenengo mailan jokatzeko. Berak eman dit aukera eta eskertzeko modukoa da. Gero asko gustatuko litzaidake Bartzelonan jokatzeko, baina hori



Arkume erretegia

Aparkalekua

Arkumea parrilan

Barazkiak parrilan


Haurrentzako parkea

Etxeko berezitasunak

Ospakizunak eta despedidak

Zumartegi industrialdea
Aitzearra kalea, 4

USURBIL Tel.: 36 60 49



Aginaga
36 27 73

SEKAÑA

BEREZITASUNAK
Txerrikumea,
Txuleta eta Arraia

atsetan

haundia dago Athleticen"

litu eta egun Athleticeko mailan. Bere hastapenak en ere , 13 urte zituenean ere bizitzako aukera pasa gek eta Athleticetik bere- Azkenean Bilbo aldera o hain urrun eta...



oso urrun dago.

-Eta Errealak bai al du tokirik zure bihoitzean?

Bai, gustatuko litzaidake Errealean jokatzera baina aukera Athleticetik eman dit eta...

Zubietan Errealaren aurkako

partidua berezia izan zen zuretzat, ezta?

Bai, Usurbilgo jende ugari joan zen eta benetan lotsatu nintzen guztiak han ikustean....baina onartu behar dut asko poztu nintzela.Gol bat sartzeaz gain penalti bat egin zidaten. Azkenean 3-3 berdindu genuen.

Ziur adarra jotzen dizutela "giputxia" zarelako...

Ni errealzalea naiz eta joan nintzenean argi utzi nuen hori. Errealaren kontra hitz egiten dutenean nik Errealaren alde egiten dut.

Ez zen giro izango azkenengo derbia eta gero...

Ez, Bilbo aldean jendea ez zegoen gustora, falta ote zen edo...

Orain estuasunean jarriko zaitut...Falta izan al zen ?

Nire ustez ez.

Reebok markarekin kontratua sinatu omen duzu...

Bai urte beteko kontratua dut Reebok erropa markarekin. Etxe honek ematen dit jutzen dudak erropa guztia. Partiduak marka honetako botekin jokatzera behartuta nago, Athleticetik Kappa botak eman arren, nik besteekin jokatu dut.

la-ia profesionala zara...

Bai zera! Badakit lehenengo mailara iristeko asko falta zaidala. Gainera Athleticen oso zaila da gora iristea , harrobiari garrantzi handia ematen omen diote baina gero beste taldeetako euskaldunengana jotzen dute.

Bukatzeke, txori txiki batek esan didanez...Zer toaila erabilzen duzu kiroldegian?

Amak oparitu zidan Errealeko toaila.

Amagoia Mujika

EMAITZAK

FUTBOLA

Otsailak 14-15

Usurbil F.T. 2 - Touring 0 (2.R.)
Orioko 3 - Usurbil F.T 2 (ju.)

Otsailak 21-22

Usurbil F.T 1 - Zarautz 5 (ju.)
Danena 2 - Usurbil F.T 3 (ka.)

ESKUBALOA

Otsailak 14-15

Ereintza 20 - Usurbil 17 (2.N.)
Usurbil 23 - Corazonistas 23 (ju.m)
Usurbil 23 - Corazonistas 17 (ka.m)
Bar Maiatza 8 - Usurbil 29 (ju.n)

Otsailak 21-22

Usurbil 21 - Pulpo 20 (2.N.)
Pulpo 31 - Usurbil 25 (ju.m)
Pulpo 21 - Usurbil 17 (ka.m)

SASKIBALOA

Usurbil S.T 28 - Uztapide 77
Kevian Sport 70 - Usurbil S.T 30

ARETO FUTBOLA

Xabier Edar. 2 - Gurrutxaga 7
Aloña Mendi 1 - Xabier Edar. 1

PELOTA

Gipuzkoako liga kadeteak

Andatz.-Pagola (Iribar-Olasagasti) 8
Girizia 4 22

Andatzpe.-P. Pagola (Arruti-Iribar) 22
Girizia I 4

Laburdurak

R.: errejonialak ka.: kadeteak
N.: nazionala n.: neskak
ju.: jubenila m.: mutilak



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala




Zumartegi industrialdea
Aitezarra kalea, 1
Tel.: 36 10 79 Usurbil


GALARRAGA GARRAIOAK

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46



**Markel Olaizola
Agiñamendi**



41 urte
Zarauztarra
Aseguru
agentea
Kirola egitea
eta ikustea eta
mendira joatea
gustatzen zaio

Astoa eta Astoarenak

Astoa dugu, gaur, ia gutxien aipatzen dugun aberea; desagertzeaz dagoela ere, esan dezakegu: inon gutxi ikusten baita.

Nork pentsa zezakeen, ordea, horrelakorik? Astoaren behar-beharra somatzen zuten, oraintsu arte, baserriarrek euren hainbat garraioetarako, batez ere, eta batzuk esatearren: marmita-esne, belar-sorta, barazki, eta abar luze, garraiatzeko. Zein bide aspergarriak beraienak! Zein bide luze eta zakarrak, haiexek!

Garai bateko astoaren zerbitzua, ez zen txantxetakoa! Bera gabe, ahula zatekeen baserria: hankamotz. Hara eta honerako, astoa; bata eta besterako, astoa; perira eta merkaturako, bota astoa! Eta denak, hortxe, asto gaixoaren beharrea. Eta, astoa, tripi-trapa, tripi-trapa, ahaleginean, txintik atera gabe, eta besteen esaneko, zintzo; hortxe, elurra nahiz kazkabarra, izotza nahiz jela, euri-zaparradak nahiz haize zakar gogorrenak izanda ere, astoak, aurrera beti, inolako aitzakiarik gabe. A, hori bai, tarteka-marteka, nekatuarena egin zezakeen musu haizeak boteaz: "fuurru-faarra" luzeak eginez bere ezpain luze paregabeekin.

Normalean, txikia izaten da; txikia, baina inteligentzia handiko: adimentsua. Badu zuhurtzia eta senik, alazan-koa! Ondotxo harrituko luke edonor, bera ezagutuz gero. Bide arrastoak laister asko jasotzen ditu. Edozein parajetik behin bakarrik pasatzea nahikoa, guztia gogoran hartzeko. Horrelakorik!

Arriskuaren sena ere, ikusgarria du; arriskuaren aurrean, "kieto" astoa "asto" eta "kieto parau". Ba-

daki zama haundi askoak eramaten gizarajoak, baina argi! haundiegiekin; aisa asko botako du bere burua plasta! lurrera, eta ondoren, kontuak. Nork zutierazi? Izorra hadi, esango balu bezala, ez du inolako zirkinik egingo; ondotxo betearaziko dizu Fernando Amezetarraren esaldi hau: "karga mas karga, deskarga". Eta deskarga egin behar astoa zutierazteko. Beharko!

Xelebrekeria eta esapide askotxo ditugu "asto" hitzetik datozkigunak. Hona hemen, batzuk aipatzekotan: hago isiluk, demonio astoa! Astakirtena, hago geldil! Hau astakiloa, nola esan dezakek hori!, eta abar luze bat.

Lazkao Txikiren ustez, astoa omen da abererik "milagrosoena": beronen ipurdia hain borobila izanda, beste zera horiek "kuadratuak" egiten dituelako. Jakina, gure "Txiki", baina, "haundi" izandakoaren ateraldi xelebre horietako bat.

Kontuak kontu, ordea, hain guregure izan dugun astoa, desagertzeaz omen; Land Rover eta beste aurrerakuntzak direlako medio, hainbeste zor diogun astoari, hor konpon! eta baztarrera, ia desagertzeraino. Joera honi ez deritzot batere ongi. Behar bada, Santueneko Joxe Juan eta Minik egindakoa izango da imitagarri:

bazterrak garbitzeko aldera, astoak larreratu. Hor ikusten dira Santueneko malkarrean gora eta behera garbiketa ederrik egiten.

Laburbilduta, hauxe dugu astoa: gizakiaren lanbide on. Bestalde, nor ez ote da, halako batean eta beraren ondoan "astotxoago" ere sentitu! Bai pozik! Dena den, hobe genuke, aurrerantz ere, guztiok "astotxotik" zerbait gehixago harrapatuko bagenu. Jakina, baietz.



Suaren gainean dantzan

Azken aste hauetan suteak albiste izan dira komunikabideetan. Jaizkibelen, joan den otsailaren 19an sortutako suak zeresan ugari eman du. Itzali dutela, berriz piztu dela... baina, honelako suteak nork itzaltzen ditu? Donostiako suhiltzaileak bakarrik joaten ote dira? Ez. Erreteneko suhiltzaileak, boluntarioak, ere aritzen dira lan horretan. Usurbilen bada talde bat. Gaur egun sei lagunek osatzen dute Usurbilgo erreteneko suhiltzaileen taldea.

Orain dela 19-20 urte inguru sortu zen erreten talde hau. Igartazabal baserriko **Santos Jauregi** da hasierako talde hartatik gaur egun jarraitzen duen bakarra. "Diputazioak, erretenak jarri nahi zituen inguru honetan sortzen ziren suak itzaltzeko eta gu animatu ginen. Oako Jose Migel,

Donateneko Lazkano, Santueneko Ubiñas... ahal genuen guztiak ibiltzen ginen". Denborarekin, ordea, taldeko kideak aldatzen joan dira. "Sartu-irten asko izan dira. Sua itzaltzen ibiltzea gogorra da eta lan egiten baduzu biak bateratzea oso zaila da. 20 urtetan ni naiz taldean mantendu den bakarra".

Gaur egun 6 dira, **Santos Jauregi, Jon Portu, Iñigo Huegun, Javier Fernandez, Joxe Migel Amondarain** eta **Ramon Iparragirre** ibiltzen dira inguruan sortzen diren suteak itzaltzen. Sua dagoelakoan itzaltzera joateko esanez basozainak edo diputazioko teknikariak deitzen die, beraien harremanetan jarri, Land Roverra hartu eta sua dagoen tokira joaten dira. "Gu, sua dagoen tokira joan eta itzaltzen saiatzen gara. Palarekin egiten dugu lan, honekin itzaltzen

baitugu sua. Sutea haundia denean, soilik, etortzen dira diputazioko kamioiak, uraskak, urarekin". Itzaltzean etxera bueltatzen dira, baina gau batean bi aldiz jeiki behar izan duten egunak ere izan omen dira Santos en esanetan.

Eta suari beldurrik ez al diote? Beldurra bai, baina hor ibiltzen dira. Santos en arabera sutan ibiltzea oso arriskutsua da, baina erreteneko kideak, guztiak elkarrekin ibiltzean dago arriskutik aldentzeko sekretua. "Erretena osatzen dugun sei kideak elkarrekin ibiltzea oso garrantzitsua da. Bat atzean gelditzen bada, galtzen bada, besteak ez dakigu hau non dagoen edo zer gertatu zaion". Su edo ke artean galtzea erraza omen da. "Askotan kea sua bera baino arriskutsuagoa izatera heltzen da".

Hala ere, suterik ez dagoenean ere zainketa lanak egin behar izaten dituzte. Egund batzuetan hego haizea dagoenean Igeldon biltzen dira arratsaldeko 18.00ak aldera eta goizeko ordubiak arte han egoten dira, suter en bat sortuko ote den ikusten. Sute gehienak otsaila eta apirila bitartean izaten dira eta hauetatik asko nahita piztutzen omen dituzte. "Berez, sua bera bakarrik piztea zaila da, beraz norbaiten eskua egon ohi da hor tartean".

Josu Aranberri



BAR USURBIL

*Pintxo eta bokata
goxo-goxoak*

Eguzkitza

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea




Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 36 37 67

Oraindik Noaua!k kuadernatu gabe?



Egioleta baserria z/g

USURBIL

Tel.: 36 63 27




*Leku lasaia eta giro atsegina.
Asteko zazpi egunetan zabalik.*



*Sagardotegiko menua
bazkari eta afarietan;
bakailoa eta haragia*

*Etxeko sagardoa
dastatzeko aukera*



Bota bertsoa

Urtetan zehar egon gerade
kate motzera loturik
gure askatasun, eskubideak,
daude oraindik bahiturik;
lana ugari eginagatik
beti gaizki ordaindurik,
nahiz eraso fisikorik
edo psikologikorik
zein jarrera sexistarik
jasan dugu ta horretxen kontra
borroka dago hasirik,
berdintasuna lortu nahi bada
denok dugu zereginik.

MARTXOAK 8:

**EMAKUME,
IRTEN KALERA
ETA EGIN OIHU!**

Aloña Azpiroz

“Zuen lekua sukaldea da”
beti-betiko jarduna,
“etxean galtzak daramatzana
gizona dela” entzuna
sexu aldetik ordua eta
legeak jartzen dituna.
Ez zaitez izan astuna
ta entzun dagokiguna,
aldarrikatzen duguna.
Eskubideak denonak dira,
luza eskua laguna,
borroka oso luzea da ta
honen giltza batasuna.

Erremedioen txokoa

KONJUNTIBITISA ETA ZISTITISARENTZAT (PIXAGUREA)

Behar duguna

*Intsusaren hostoa


100 edo 200 gramo intsusa hosto bilduko ditugu lehenik. Gero, uretan jarriko ditugu irakin arte. Behin ura bor-borka hastean, sutatik kendu egingo dugu eta bertako lurruna aurpegian hartuko dugu buru gainean zapi bat jarrita. Horrelako bost sesioaldi 10 bat minutuz hartuz gero, nahikoak izango dira bai konjuntibitisa eta baita zistitisa ere desagertetzeko.

Lehiaketa

Non dago iturri, eskultura hau?

Asmatzaileen artean **Egioletan** bi lagunentzako afaria zozketatuko da

Jasone Goenaga, Begoña Ramos, Doltza Villagrasa, Aito Usandizaga, Ibai Arruti, Maider Arrospide, Itziar Illarramendi, Nerea Kamino, Tomas Iturralde, Gorka Aierbe, Garikoitz Agorreta eta Josu Aranberri dira argazkikoak. **Haritz Harreguy** da lehiaketaren irabazlea. Ondo afaldu Zumetan! Zorionak!



Urruñako ikastolaren aldeko kanpaina

Urruñan eraiki nahi duten ikastolaren aldeko kanpainak aurrera darrai. 435.000 pezeta bildu dira ja eta helburutzat jarri ziren 700.000 pezetara iristeko gero eta gutxiago falta da. Zuk ere lagundu dezakezu!

Euskadiko kutxa:
3035 0140 34 1400012462

Kutxa:
2101 0069 18 001695237



2. nazionaleko Usurbil Kirol Elkartea aurreneko postuetan mantentzen da oraindik. 2. postutik 3. postura jeitsi badira ere, martxoaren 7an, arratsaldeko 18.00etan Egia taldea menderatzen saiatuko dira Oiardo kiroldegian.

OTSAILAK 27 ostirala

- **Areto futboleko partidua** (m): **Xabier Edaritegia - Umore Ona** Oiardo kiroldegian, 20.45etan.

OTSAILAK 28 larunbata

- Bigarren nazionaleko **eskubaloi partidua** (2N): **Deusto-Usurbil K.E**
- **Eskubaloi partidua** kadete mailan (m): **Usurbil K.E-Ereintza**. Oiardo kiroldegian arratsaldeko 16.30etan
- **Eskubaloi partidua** jubenil mailan (m): **Usurbil K.E-Ereintza**. Oiardo kiroldegian arratsaldeko 18.00etan
- **Futbol partidua** jubenil mailan(m): **Gazteak - Usurbil F.T.**
- **Futbol partidua** errejional mailan. Igoera fasea.(m):

Boskozaleak - Usurbil F.T. Donostian.

- **Futbol partidua** errejional mailan(n): **Boskozaleak - Usurbil F.T.** Donostian.

MARTXOAK 1 igandea

- **Saskibaloiko partidua** (m): **Usurbil S.T - Niessen**. Oiardo kiroldegian 10.00etan hasita.

MARTXOAK 6 ostirala

- **Areto futboleko partidua** (m): **Xabier Edaritegia - Adarra pasteleria** Oiardo kiroldegian, 20.45etan.

MARTXOAK 7 larunbata

- Bigarren nazionaleko **eskubaloi partidua** (2N): **Usurbil K.E- Egia**. Oiardo kiroldegian arratsaldeko 18.00etan

- **Eskubaloi partidua** jubenil mailan (m): **Elgoibar- Usurbil K.E.** Elgoibarko kiroldegian
- **Eskubaloi partidua** kadete mailan (m): **Elgoibar- Usurbil K.E.** Elgoibarko kiroldegian
- **Futbol partidua** errejional mailan(m): **Usurbil F.T. - Elgoibar**. Harane futbol zelaian 16.30etan.
- **Futbol partidua** errejional mailan(n): **Boskozaleak - Usurbil F.T.** Donostian.
- **Saskibaloiko partidua** (m): **Alde Zaharra - Usurbil S.T - Altzako** kiroldegian arratsaldeko 16.00etan.

MARTXOAK 8 igandea

- **Futbol partidua** jubenil mailan(m): **Usurbil F.T. - Amai-kak bat**



NEREA ERAUNZETA-MURGIL MANTEROLA

"apelliduak abizendu"

euskara itzazu zure izen-abizenak!

guk lagunduko dizugu, zatoz gugana

Noaua!!
HAMABOSIEN

Kale Nagusia, 37 - Tel. 36 03 21



USURBILGO UDALA
EUSKARAREN AHOLKU
BATZORDEA



EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ
84 postakutxa
Usurbil

A genda

OTSAILAK 27 ostirala

- **Senideak-en manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan.

MARTXOAK 1 igandea

- **Zumarteko koruak**
Zumarragako Antigua ermitan egingo den abesbatza lehiaketan partehartuko da gaur goizean.

MARTXOAK 2 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren manifestazioa. Arratsaldeko 20.00etan, errotondan.

MARTXOAK 6 ostirala

- **Alzheimerrari buruzko hitzaldia** emango du Ignacio Mendiguren medikuak. Guraso eskolak antolatutako ekitaldi hau Udarregi zaharrean izango da 18.00etan.
- **Senideak-en manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan.

MARTXOAK 7 larunbata

- Santixabel festak antolatze-ko bilera egingo da udal-tertxeko pleno aretoan goizeko 11.30etan.

MARTXOAK 8 igandea

- Odol emanaldia anbulategian. Arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara.



Datorren martxoaren 8an egun berezia da emakumeentzat, denek ospatzen ez badute ere. Usurbilen, giro alaia eta festa atsegina dugu eta topagune berezi hau ohitura bihurtu da askorentzat. Aurten ere, ez dugu alde batera utziko eta martxoak 7an, larunbatean, Ugarte jatetxean bilduko gara gaueko 20.00ak aldera. Bertan programa berezi bat dugu. Gonbidapen txartelak, Laurok eta Lizardin egongo dira martxoaren 4a arte.

MARTXOAK 9 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren manifestazioa. 20.00etan, errotondan.

OHARRAK

- ✓ Otsailak 6an **Nokia markako telefono mugikorra** aurkitu zen Atxegaldan. Galdu duenak udaltzainei eska diezaioke.
- ✓ **Etxea alokatu nahi nuke Kaleberri inguruan.** Interesatuak deitu telefono honetara: 364335
- ✓ **Pisu bat hartu nahi nuke alokairuan.** Ahal bada, herriaren erdialdean. Deitu telefono hauetara eta Kristinarengatik galdetu: 36 58 99 edo 989 89 80 95.
- ✓ **Saloun pisu bat dut salgai.** 104 metro karratukoa, altzariz hornituta, igogailuarekin eta hondartzatik 100

metro ingurura. Terraza itxi handia, 3 logela, bainu-gela eta jangelarekin. Prezioaz hitzegingo genuke. Deitu **362865 telefonora** gaueko 21.00etatik aurrera.

- ✓ Kate bat galdu da. Bertan, "Beñat, 1990-9-2" jartzen du. Inork aurkitu badu dei dezala 372675 telefonora.
- ✓ **Atxegaldeko urbanizazio lanak hastera doaz** eta horregatik lehendabizi itxiko den kalea Aristitxo (6tik 12ra) izango da.

LANPOSTUAK

⇒ Arrasateko udal-eko **funtzionarien plantilan plaza bat** betetzeko hautaketa. Euskal Legebiltzarrak liburutegi, artxibo eta dokumentazioko lau laguntzaile behar ditu. Eskerak aurkezteko epea: martxoak 6. Informazio gehiago GAOko 33. ean.




BAZKIDIE TXARTELA

5.000 PEZETAK URTE OSORAKO

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____





Udarregi Ikastola




**2tik 16
urtetara**

***Haur Hezkuntza
(2-6 urte)***

***Lehen Hezkuntza
(6-12 urte)***

***Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntza
(12-16 urte)***



Matrikulazio epea:

**Otsailaren 26tik
martxoaren 13ra**

Ordutegia:

**Goizez, 10etatik 11etara
Arratsaldez, 16etatik 17etara**

☎ 36 12 16